

**BRASIL.** Kargu hartzearen ondoren, jakin-mina dago Lularen politikak hartuko duen norabidearen inguruan

## Tirabirak sortu dira Gobernu berriko ministro baten eta presidentearen alderdiaren artean

Agentziak | RIO DE JANEIRO

Duela lau egun karguari zin egin zion Luiz Inacio Lula da Silva Brasilgo presidentearen alderdian ezinegona sortu da gobernu berriko ministro batek eginiko proposamen baten haritik. Banku Zentralari autonomia emateko Konstituzioa aldatzeko proposamen bat egitea bere lehentasunetako bat izango dela iragarri du Antonio Palocci Ogasun ministroak. Irargarpenak haserrea sortu du Langileen Alderdiko (PT) alorrik ezkertiarrean.

«Brasilen ekonomia zuzentzeari uko egitea da hori», esan zuen atzo Lindberg Farias PTko diputatuak. Banku Zentralari autonomia emateko neurriak alderdiaren gehingoaren arbuioa zuela gaineratu zuen.

Bozen %61 bigarren itzulirabazita, Brasilgo lehen ezkerreko presidentea bihurtzeko eskubidea lortu zuen Lula sindikalista ohiak urriko hauteskundeetan. Bozetako kanpainan ezkerreko diskurtsoa epeldu zuen Langileen Alderdiko hautagaiak. Jakin-min handia dago Lularen politikak hartuko duen norabidearen inguruan.

### Merkatuak lasaitzeko neurria

Banku Zentralari autonomia ematea eta haren presidentearen kargua finkoa egitea merkatuei zuzenduriko keinu lasaigarriak direla esan zuen Palocci ministroak ostegunean, PTko diputatuekin izaniko bileran. Neurriak Lularen sostengua du. Palocci korrante troskista bateko kide gisa sartu zen 1980. urtean sorturiko Langileen Alderdian.

PTko diputatu moderatuek ere ez dute begi onez ikusi Palocciaren proposamena. «Autonomiak ez badu ekartzen banku Zentralak Gobernuaren politika ekonomikoa erabakitzea, ez dago arazorik. Baina oso ongi eztabaidatu beharko da zer-nolako ahalmena ematen zaien erakundeko zuzendariei», esan zuen Joao Paulo Cunha Legebiltzarrean PTko eleduna izandakoak.

Alderdian diren desadostasunak agerian geratu dira azken egunotan, batez ere Lulak Banku Zentrala zuzentzeko Henrique Meirelles bankari ohiaren izendatu duela iragarri ondoren. «Ez genituen hauteskundeak horretarako irabazi», esan zuen orduan Heloisa Helena Langileen Alderdiko senatariak.

## JOAO PAULO RODRIGUES | BRASILGO MST LURRIK GABEKO NEKAZARIEN MUGIMENDUKO KOORDINATZAILEA

# «Ez dugu Lula presatzeko asmorik, baina prest ditugu neurriak»

Edu Lartzanguren | DONOSTIA

Brasilgo Lurrik Gabeko Nekazarien Mugimenduko koordinatzaile nazionala da Joao Paulo Rodrigues. MST luraren banaketa exijitzeko latifundioetan okupazioak egitea gure ospetsu bihurturiko mugimendua da. MSTren eta Luiz Inacio Lula da Silva presidente berriaren gobernuarekiko harremanen arduraduna da Paulo. Lurrik gabekoek gobernu berriarekin dituzten itxaropenei buruz, Brasilia hiriburutik mintzatu zaio EGUNKARIARI.

■ **Zer espero du MSTk Brasilen urtearen hasierarekin indarrean jarritako gobernu berriarekin?**

Itxaropena oso bizia da. Lula eta Langileen Alderdian historian langileen defentsa izan da beti nagusi, eta, batez ere, luraren eta lur erreformaren kausa. Horren alde borrokan ari garen gizarte mugimenduko zera espero dugu: Lulak lur erreforma handi bat egingo duela gure herrian.

■ **Norainoko lur erreforma izango dela uste duzue?**

Brasilek du munduko lur kontzentrazio handiena, eta ezer ekoizten ez duten latifundio ugari daude. Horregatik, gure mugimenduko hainbat lan proposatu dizkio Lulari: Lehenengo lurra demokratizatzea litzateke, hau da, ekoizpenik gabeko latifundioak desjabetu eta lurra banatzea. Bigarrena nekazaritza txikian inbertsio handia egitea litzateke. Brasil nekazaritza ekoizle handia da mundu mailan, baina esportaziorako nekazaritza handiaz ari gara betiere, ugazaben nekazaritza. Kontsumorako nekazaritza txikiak ez du orain arte inongo garrantzirik izan Brasilentzat. Lularen-gandik espero dugu sostengu tekniko eta dirua emango dizkiola nekazaritza txikiari.

■ **Lulak egin duen ministro aukeraketak lagunduko du horretan? Roberto Rodrigues Nekazaritza ministro berriak, esaterako, ez du ezkerreko joerarik.**

Bi ministerio eratu dira: bat esportaziorako nekazaritza arduratuko da; nazioarteko merkaturako eskala handiko ekoizpenaz, alegia. Hori izango da Roberto Rodriguesek zuzenduko duena. Enpresabu-



RENZO GOSTOLI / AP

**LUR ESKE PROTESTAKA.** Lurrik Gabeko Nekazarien Mugimenduko kideak, Rio de Janeiron eginiko manifestazio batean.

ru handiekin ere ariko da. Gure mugimendua, berriz, Miguel Rosetto Nekazaritzaren Garpenerako ministroarekin ariko da, eta horrek ezkerreko tradizio handia du. Gizarte mugimenduen aldamenean izan zen Rio Grande do Sul estatuko gobernadoreorde izan zenean.

■ **Zer agindu die Rosettok lurrik gabekoei?**

Bilerak egin ditugu jada ministroarekin, eta zera agindu digu: ekoizpenik gabeko latifundioei ekingo diela, kanpaturik diren familiak finkatuko dituela eta lur erreformak sorturiko asentamenduak sostengatuko dituela.

■ **Lularen gobernuak lur erreformaren inguruko aginduak beteko ez balitu, indar egiteko neurriak aurreikusi duzue?**

Ez dugu uste halakoren beharrik egongo denik, Lularen gobernuak lur erreformari ekin-

go diolako. Estu hartu behar izanez gero, Lurrik Gabeko Nekazarien Mugimendukoak prest ditu neurriak, alabaina. Gure etsai nagusia ez da, halere, Lularen gobernuak, latifundioak baizik, eta Lula gure aliatua da latifundioen aurka.

■ **Eperik jarri al diozue Lulari?**

Badira luze gabe konpondu beharreko hainbat arazo larri: esaterako, lurrik gabe kanpaturik dauden familiena. Lur arazoak berehalako neurriak eskatzen ditu. Halere, ez dugu Lula presatzeko asmorik, berak nolabaiteko prestutasunez erantzungo duela ulertuta.

■ **MSTren lurren okupazio politikak aurrera egingo du?**

Bai. Okupazio ekintzak latifundioak salatzen modu bat dira. Lurren okupazioa bukatuko da latifundioak bukatzen direnean.

■ **Hauteskunde kanpainan**

**nolabaiteko urruntzea sumatu zen Lularen Langileen Alderdian (PT) eta MSTren artean. Egon al da hurbilketarik presidentetza lortu ondoren?**

Hauteskundeetan elkarriketatzen jarraitu genuen —Lularekin ez bazen ere— alderdiaren buruzagitzarekin. Ulertu genuen une hura PTren uena zela —bere programaren propagandarako— ez MSTrena. Harremanetan jarraitzen dugu orain ere. Elkarriketa horren aurretik PTren zuzendaritzarekin izan gara bildurik.

■ **Kanpo zor eta Nazioarteko Diru Funtsarekiko zein politika eskatuko diozue gobernu berriari?**

NDF Nazioarteko Diru Funtsarekin itunak egiten eta kanpo zorra ordaintzen jarraitzen duen bitartean, herri txiroa izango da Brasil. Horregatik, MSTk zera eskatuko dio Lulari: Brasilek zein zor ordaintzen jarraitu behar duen aztertzeko auditoria bat egitea, eta NDFrekin itun berririk ez egitea. Halere, garrantzitsua iruditzen zaigu Brasilek nazioartean sinesgarritasuna ez galtzea, eta beste estatuekin merkataritza harremanak eta inbertsioak gordetzea. Hori, betiere, nazioarteko erakundeei independentzia zainduta.

■ **Brasil Ameriketako Merkataritza Librerako Gune-tik (ALCA) atera dadila eskatu diozue jada ofizialki presidente berriari?**

Presidentearekin bilera formal izan bezain pronto egingo dugu. Gure aburuz, ALCAk ez dio inongo mesederik egingo Brasilgo herriari. Langabezia handia sortuko du hemen, Brasil bazkide pobrea izango delako, eta enpresa gutxi izango dutelako Estatu Batuetakoekin lehiatzeko aukerarik. Hemengo nekazaritzak ezingo dio hangoari aurre egin. Brasilgo enplegu eta barne politikaren eragin larria izatea litekeena da. Gure ustez, ALCA ez da merkataritza librerako proposamena, Brasil Estatu Batuetara anexionatzeko proposamena baizik, Hego Amerika osoan estatubatuarren mesederako gune bat sortze aldera.

■ **Zer erantzun emango du presidenteari?**

Lulak ALCAko ituna ez duela sinatuko uste dugu.

### LUR ERREFORMA

«Gure etsai nagusia ez da, halere, Lularen gobernuak, latifundioak baizik, eta Lula gure aliatua da latifundioen aurka»